



Memoria Korporatiboa 2023

# IMQ Igurco

Hobeto zaintzeko  
berritzen dugu



IMQ Igurco

# Zuzendariaren gutuna



**Santiago Canales**

IMQ Igurcoko Zuzendari Orokorra

## Berrikuntza humanizazioan eta digitalizazioan

IMQ Igurcon, berrikuntzan sinesten dugu, adineko pertsonen kalitateko zaintzaren garapenean funtsezko elementu gisa. Gure etengabe-ko hobekuntzan, gure ahaleginak funtsezko bi esparru osagarritara bideratuko dira: **humanizazioa eta digitalizazioa**.

Lehenengo atalean, humanizazioarenean, gure zentro eta zerbitzu guztietan pertsona ardatz duen kultura ezartzearen alde lan egiten dugu, pertsona nagusia, bere lagun maiteak eta eren harremanak asistentzia-prozesuaren erdigunean jartzen dituen zaintza-eredua. Adinekoak, haien arteko harremanak, senideak eta gure taldeak behar diren zainketen definizio bateratuan inplikatzeko aukera emango digu desioak eta asistentziaren kalitatea errespetatzeko kulturaren aurrera egiteko.

IMQ Zorrotzaurre eta Virgen Blanca kliniketara IMQ Laguntza doako informazio eta aholkularitza zerbitzua eramatea, beste puntu nabarmen bat da. Ospitale horietan, IMQ Igurcoko gizarte-langileak ospitaleratutako adinekoen eta hala eskatzen duten familien eskura jartzen dira, autonomia-galerei, hauskortasunari eta mendetasunari ahalik eta ondoen aurre egiteko moduari buruzko informazioa emateko. **Aholkularitarik onenarekin bakarrik har daitezke erabaki onenak.**

Baina berrikuntzak teknologiaz eta digitalizazioaz ere hitz egiten du. Bi alderdi horiek adinekoek arreta hobe emateko jartzen dira. Puntu honetan, **2023an "IgurTEK, etxeko laguntza" zerbitzua martxan jarri izana nabarmentzen da**. Zerbitzu berri honen helburua adinekoak beren gizarte- eta familia-ingurunean ahalik eta denbora gehien eta ahalik eta autonomia eta bizikaltate handienarekin egon daitezkeen erraztea da, eta, era berean, zaintzaileari bere lana egiteko ezagutza profesionalak ematea. Hori guztia funtzio anitzeko plataforma teknologiko baten bidez, urruneko arreta eta etxeko zainketei laguntza ematea ahalbidetzen duena.

Digitalizazioa sendotu egin da, era berean, funtsezko elementu gisa IMQ Igurco familiarengan konfiantza duten familiekiko komunikazioan eta harremanetan, haien senitartekoa zaintzeko eta artatzeko. Gure Egoitza Gardenak aplikazioaren bidez, gure egoitzetako adineko bakoitzaren egunerokoa hurbiltzen diegu senideei, eta arinago trukutzen dugu informazioa eta beharrezko kudeaketak. Zertarako balio du teknologiak, ez badugu lortzen guran konfiantza jartzen duten pertsonen lasaitasunaren zerbitzura jartzea?

Proiektu eraldatzaileen esparruan, 2023a urte ona izan da IMQ Igurcorentzat ere. Otsailean Gasteizen **Arabarren zaintza-zentroaren inaugurazio ofiziala** egin genuen, eta hilabete horretan bertan, IMQ Igurco Unbe zentrotako lehen bizikidetz-unitatea ere martxan jarri genuen, arreta pertsonalizatuagoa ematen duen eredua.

Azkenik, Urteko Memoriaren sarrera hau itxi nahi dut, eta **IMQ Igurco Alhóndiga** egoitza berriko obren hasiera azpimarratu. Mugarri berri bat, bi hamarkada baino gehiagoz adinekoek arreta emateko gure jakintza guztia biltzen duena. Zentro horrek, IMQren beste laguntza-gailu batzuekin partekatuta, gailu digital berritzaileak bilduko ditu, zaintza-eredu berrira erabat egokitutako azpiegiturak, eta, jakina, prestatuntza handiko, motibatutako eta arreta onena eta zainketa onenak emateko konpromisoa duen talde bat egiten jakitea.

Gaur, atzo bezala, indarrak batu ditugu aurrera egiten jarraitzeko.

01

GU

04. orria

---

02

IMQ TALDEA

06. orria

---

03

ERREFERENTEAK ADINEKOEN  
ZAINKETAN  
MAGNITUDE NAGUSIAK

07. orria

---

04

GURE ZERBITZUAK

09. orria

---

05

PROIEKTU ERALDATZAILEAK

16. orria

---

06

EZAGUTZAREKIN  
KONPROMETITUAK

17. orria

---

07

KOMUNIKAZIOAREKIN ETA GARDEN-  
TASUNAREKIN KONPROMETITUAK

19. orria

---

08

EZAGUTU NAHI  
ZAITUGU

20. orria

---

---

# 01 GU

---



**Adineko pertsona hauskorrek eta/edo mendekoak zaintzeko agente eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, eta horretarako, gure zentroetan eta Euskadiko eremuko etxeetan zerbitzu soziosanitarioak bultzatzen ditugu”**

## Asistentzia-eredu **dinamikoa eta diziplinartekoa**

---

IMQ Igurcon, asistentzia-eredua esku-hartzearen eta arretaren ideia dinamiko eta plastikotzat hartzen dugu. Adinekoen behar erreal eta aldakorretara bideratutako sistema, ahal den neurrian aldaketa horien eragina aurreratuz eta minimizatuz.

## **Adinekoen zerbitzura dagoen taldea**

---

Gure eredua diziplinartekotasunaren ideian oinarritzen da. Horretarako, profesional-talde kualifikatu bat dugu, urteik urtera hazten doana, asistentziaren kalitate-maila handia bermatzeko, bai eta arreta profesionala, hurbilekoa, pertsonalizatua eta gizatiarra bermatzeko ere.

## Gure xedea

Adinekoen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzea, zerbitzu soziosanitario onenak eskainiz. IMQ Igarco osatzen dugunok zaintza onenak bermatzeko lan egiten dugu, haien bizi-lehentasunen arabera.

## Gure ikuspegia

Adineko pertsona hauskorrek eta/edo mendekoak zaintzeko agente eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, eta horretarako, gure zentroetan eta Euskadiko eremuko etxeetan zerbitzu soziosanitarioak bultzatzen ditugu.

## Gure balioak



**BEZEROA** maite dugu: Horixe da gure izateko arrazoia



**AUSARTAK** gara: Aurrea hartzen dugu, etorkizunak kezkatzen gaitu



**GERTU** gaude: Konfiantza sortzen dugu, errespetua eta maitasuna eskaintzen ditugu



**TALDE** bakarra gara: pasioz, etikaz, arduraz eta konpromisoz jokatzten dugu



**IRABAZLEAK** nahi ditugu: Ausartzen diren pertsonak, eredugarriak



**HOBEEK** izatea beti: sinesgarriagoak, errentagarriagoak, eraginkorragoak

---

# 02 IMQ TALDEA

---

## Profesionaltasuna, kalitatea eta zerbitzua

---

Igurcon harro gaude Euskadiko osasun-sektore pribatuko konpainia liderraren parte izateaz, bai eta Estatu-tuko garrantzitsuenetako baten kide izateaz ere: **IMQ Taldea**.

## Osasunaren zerbitzura dagoen enpresatalde indartsua

---

**90 urteko esperientzia** duen enpresatalde indartsua da eta ia 50 enpresa partaideturen bitartez jarduten duena. IMQ Taldeak 384.000 pertsonari baino gehiagori eskaintzen die osasun-estaldura Euskadin, eta, gainera, 135.000 langileri ematen dizkie lan-osasunaren arloko zerbitzuak 4.900 enpresatan baino gehiagotan.

## Euskadiko osasun-sare pribatu handiena

---

IMQ taldeak, gainera, **1.800 profesional** eta Euskadiko osasun-sare pribatu zabalenez osatutako koadro mediko zabala du, **22 zentro propio** eta espezialitate mediko-kirurgiko ugari baititu eskuragarri.

## Etengabe hobetzen ari den osasun-taldea

---

Produktuen aniztasunari, zentro eta klinika propio berriak etengabe irekitzeari eta hiru lurraldeetan duen presentzia aktiboari esker, bikaintasunarekiko, profesionaltasunarekiko eta zerbitzuginarekiko konpromiso irmoa duenez, IMQ Taldeak eskaintza integrala bermatzen du, bezeroek beren bizizikloan zehar behar izan ditzaketen premia guztiei erantzuna emango die-na, **irtenbide pertsonalizatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak eskainiz**.

# 03

## ERREFERENTEAK ADINEKOEN ZAINKETAN MAGNITUDE NAGUSIAK

Lehen mailako zentroen sarea **zugandik oso gertu**



**20 urte**  
baino gehiagoko ibilbidea



**+ 65 milioi eurotik**  
gora azpiegituretan



Egoitza



Eguneko Zentroak



Tutoretzapeko  
Apartamentuak

Egungo eta etorkizuneko **profesional onenekin**

Taldeko langileak



Praktiketako langileak



Plaza publikoak,  
pribatuak eta  
itunduak  
**erabiltzaile  
bakoitzaren  
beharrei  
erantzuteko**

**1.304** plaza guztira


Egoitza-zentroak: **861 ohe**

Eguneko zentroak: **393 plaza**

Tutoretzapeko apartamentuak: **50 plaza**

## Urtetik urtera gero eta pertsona gehiagok jartzen dute **konfiantza guban**

IMQ Igurco Euskadiko **sektore sozio-sanitarioaren eragile nagusietako bat da**, eta lehen mailako zerbitzuak eskaintzen ditu, adinekoen bizi-kalitatea hobetzera eta gaitasun fisiko eta kognitiboak ahalik eta gehien mantentzera bideratutako diziplina arteko arreta bermatzen duen profesional-talde baten eskutik.



*Fakturazioa:*  
azken urteetako fakturazioaren bilakaera M€-tan

### Urteko egonaldien kopurua:

Urtea	Egoitzak	Eguneko Zentroak	Guztira
2019	75.445	238.150	313.605
2020	42.173	243.800	285.805
2021	46.790	248.887	295.677
2022	69.035	248.861	317.896
2023	74.019	265.741	339.760



■ Egoitzak  
■ Eguneko Zentroak

### Asistentzia-adierazleak:

**317 presio-ultzera (UPP) osatuta**  
2023an  
(0,86 UPPs/egunean)

**09 atxikimendu**  
12/31n  
(-63% vs. 2020)

**SFUko altak etxerako**  
- 63%

Irabazi Funtzional Absolutua SFUn batez beste  
**26 p.p.-ko hobekuntza**  
Barthel-en



# 04 GURE ZERBITZUAK

## Gure egoitza soziosanitarioak



IMQ Igurco Araba



IMQ Igurco Bilbozar



IMQ Igurco Forua



IMQ Igurco  
Jose M<sup>o</sup> Azkuna



IMQ Igurco Orue



IMQ Igurco Unbe



**Zugandik gertu daude**  
adinekoak profesionaltasunik  
handienarekin zaintzeko.”



IMQ Igurco Zorrozoiti

# Zainketa espezializatuak

## Susperraldi Funtzionalerako Unitatea (SFU)

Arazo akutu bat sendatzeko fasean egonda, autonomia galdu eta berreskurtu dezaketen pertsonengan espezializatutako zerbitzua da. Errehabilitazio-aldi batean diziiplina anitzeko talde batek esku hartu ondoren, pertsona etxera itzul daiteke, batez beste 20 puntuko autonomia hobetuta eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

## Bizitzaren Amaierako Zainketa Unitatea

Era berean, laguntza profesionala, pertsonalizatua eta integrala eskaintzen dugu, pertsona bakoitzaren beharrei erantzuten diena, **personen duintasunarekiko errespetua bermatzen duena eta giza tratua** bermatzen duena gaixotasun aurreratu, progresibo, sendaezin eta tratamendu espezifikoari erantzuteko aukerarik ez dagoenean edo berehalako heriotza gertatzen denean.

	2019	2020	2021	2022	2023
Orue	13.870	16.854	15.641	13.390	12.602
Unbe	9.974	7.121	7.748	10.480	9.323

*Orue eta unbeiko SFUn eta Bizitzaren Amaierako Zainketa Unitatean izandako egonaldi kopurua*

### Ortogeriatria

Aldaka, orno, sorbalda eta abarren hausturak.

### Neuro-errehabilitazioa

Istripu zerebrobaskularrak (iktusa).

### Susperraldiak

Ospitalean edo etxean egonaldi luzeak egin ondoren, gaitasun funtzionalaren galera prebenitzeko edo hobetzeko.

# Gure Eguneko zentroak

Arreta zaindua eta profesionala eskaintzen dute, adinekoei eta haien zaintzaileei laguntzeko.



**Aboa Getxo**



**Bilbozar**



**Estartetxe Leioa**




**Etxaniz**



**Ondarroa**



**Otxarkoaga**



**Galdakao**



**San Adrián Bilbao**



**Ugao-Miraballes**



**Zorrozoiti**

# Zainketa ziurtatuaren kalitatea

20 urte baino gehiagoko ibilbidean, IMQ Igurcok bilakaera izan du eta adinekoentzako arreta-eredua egokitu du, asistentziaren kalitate-estandar berrietara egokituz. Horrek esan nahi du hobeto identifikatzen direla gure zentroetan sartzen diren adinekoei eragiten dieten sindromei eta gaixotasunei lotutako arriskuak. Asistentziaren kalitatearekiko konpromisoaren erakusgarri, IMQ Igurcok hainbat arau eta ziurtagiri txertatu ditu bere kudeaketa-sisteman:

## ISO 9001 - Kalitatearen Kudeaketa



10 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak aukera ematen dio IMQ Igurcori zerbitzuaren **eten-gabeko hobekuntzarako eta kalitate bikainerako** beharrezkoak diren baldintzak eta kontrolak zehazteko.

## UNE 179003 - Arriskuen kudeaketa pazientearen segurtasunean



Pazientearen segurtasunaren arloko arriskuak kudeatzeko araua IMQ Igurco Oruen ezarri zen 2018an, eta IMQ Igurco Unbera hedatu zen 2021ean, **egoiliarrentzat dauden arrisku espezifikoak identifikatzeko eta minimizatzeko helburuarekin**.

## Libera-Care araua - Atxikimendurik gabeko zentroak




*Cuidados Dignos* izeneko Fundazioak 2018an **onartu zuen IMQ Igurco Zorrozgoiti atxikimendurik gabeko zentro gisa, eta ziurtagiri hori duen EAEko lehen egoitza-zentro bihurtu du**.

## ISO 14001 - Ingurumen-kudeaketa



2021az geroztik, jasangarritasunari, **baliabideen erabilera arduratsuari eta hondakinen kudeaketa eraginkorragoari esker**, IMQ Igurcok Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortu du.





“**2.200 pertsonak baino gehiagok gozatu dute zainketa ulertzeko dugun moduz.**”


# IMQ Laguntza

IMQ Laguntza zerbitzuak leku bakar batean batzen ditu gure ezagutza guztiak, gure bezeroek, haien senideek eta bezero ez direnek **zalantzak argitu** ahal izan ditzaten eta sektore publikoan zein pribatuan dauden **irtenbide soziosanitarioei buruzko informazio eta aholkularitza onena** lor dezaten.

## Zerbitzu paregabea merkatuan

Doako zerbitzu honen bidez, adinekoari eta haren familiei informazioa eta aholkuak ematen dizkiegu, beren bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak har ditzaten.

**IMQ Laguntza zerbitzua telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurre dago eskuragarri** Zorrotzaurreko eta Virgen Blanca kliniketan.




*IMQ Laguntzan azken urteetan artatutako kontsulten bilakaera.*

*2023an gehien kontsultatutako gure zerbitzuak:* jasotako kontsulta guztien %

Teleguntza	Susperraldi Funtzionalerako Unitatea	Etkez etxeko laguntza	Egoitzak	Beste zerbitzu batzuk
% 22	% 24	% 20	% 17	% 17

## Teleguntza

**Urteko 365 egunetan 24 orduz** funtzionatzen duen zerbitzua. Bakarrik bizi diren edo eguneko orduak konpainiarik gabe igarotzen dituzten pertsonentzat pentsatuta dago, talde profesional baten laguntza sentitu nahi dutenak. Talde horrek, botoi bat sakatuta, larrialdia edo laguntza behar duen edozein egoera konpontzeko behar diren baliabideak mobilizatuko ditu.



*Teleguntza-zerbitzuaren onuradunen bilakaera*

# Etxeko zainketen plana: Igurtek

Gure talde profesionalen ezagutza gure erabiltzaileen etxera eramaten dugu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak – zainketailearekin batera eta Igurteken laguntzarekin – ahalik eta denbora gehien eman dezaten etxean.

**1. fasea - Balorazio integrala:** Galdetegi erraz baten bidez, adineko pertsonaren eta zainketailearen egoera aztertzen da, eta bietan dauden arazoak, arriskuak eta laguntza-beharrak identifikatzen dira ikuspegi holistikoa eta integral batetik.

**2. fasea - Zainketa Plan Pertsonalizatua:** Zainketa-plana osatzen duten helburuak eta egin beharreko esku-hartzeak/ekintzak ezartzen dira.

**3. fasea - Zainketa-plana abian jartzea eta haren jarraipena egitea:** Zainketa-plana abian jartzeko, esku-hartzeak egiteko eta horien jarraipena egiteko, plataforma baten eta tablet baten laguntza izango da, adinekoaren eta/edo zainketailearen eta IMQ Igurcoko profesionalaren arteko komunikazio arina ahalbidetzen dutenak.



## Arrakasta-kasuak eta aintzatespenak

Barakaldoko Udala	Urretxuko Udala
<p>Proba pilotu bat egin dugu udalerriko mendeko adinekoekin, 6 hilabetez.</p>	<p>Proba pilotu bat jarri dugu martxan udalerrian mendekotasuna duten adinekoekin, 6 hilabetez. Proiektuaren arrakasta ikusita, lankidetzaren berritu dugu 2024rako.</p>

Getxoko Udala
<p>Azterlan bat egin dugu, eta, bertan, Getxoko 113 zainketailearen egoera aztertu dugu, mendekotasuna duten adinekoak ardurapean dituztenena, eta haien beharrak, arriskuak eta abar identifikatu ditugu. Gainera, 2024an pilotu bat jarriko dugu abian udalerrian mendekotasuna duten adinekoentzat.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, <b>Iraupen Luzeko Zainketetan Pertsonalizatzeko Jardunbide Egokien</b> aintzatespenen esparruan, aipamen berezia egin dio “Dignity Therapy bultzatuz adineko pertsonak etxean zaintzeko” gure proiektuari.</p>

# 05 GURE PROIEKTU ERALDATZAILEAK

## Arabarren

Urtarrilean, **Arabarren zaintza-zentro berriaren** atek ireki genituen Gasteizen. Zentro horretan, zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan dugun ezagutza guztia eman dugu. Arabarren gizarte-ekimeneko kooperatibak kudeatzen duen egoitzako eta eguneko zentroko baliabide berriak **150 plaza publiko berri ematen dizkio Arabako sare soziosanitarioari.**




## IMQ Igorco Unbeko Bizikidetza Unitatea

Aurtengo otsailean inauguratu dugu **gure lehenengo bizikidetza-unitatea IMQ Igorco Unbe zentroan.** Unitate horiek, Pertsonarengan Oinarritutako Arretaren ereduarekin batera, arreta pertsonalizatuagoa errazten dute, zereginean gutxiago zentratua eta pertsonarengan, zaintza parte-hartzaileetan gehiago bideratua, komunitateari irekiagoa, etab.



## IMQ Igorco Alhóndiga

IMQ Igorco Taldearen **zortzigarren egoitza izango denaren** obrek aurrera jarraitzen dute. Egoitza berria Bilboko erdigunean egongo da – Concha Jenerala eta Fernandez del Campo kaleen artean – eta **79 plaza pribatu izango ditu.** Irekiera-data 2024ko hirugarren hiru hilabeterako aurreikusita dago.





# 06 EZAGUTZAREKIN KONPROMETITUAK

## Zu zaintzeko bat eginda

Zerbitzu soziosanitarioen erakunde gisa, IMQ Igurcon uste dugu irakaskuntza, zentro anitzeko ikasketak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak ezinbestekoak direla **kalitateko arreta eta zainketa emateko**.

**Ospitaleak:** Gurutzeta, Basurto, Urduliz, Galdakao-Usansolo, Santa Marina eta Gorkiz.

**Erakunde Sanitario Integratuak (ESI):** ESI Barrualde-Galdakao.

**Unibertsitateak:** Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Europako Unibertsitatea eta Valentziako Naioarteko Unibertsitatea.

**Lanbide heziketako zentroak:** Gurutze Gorria BHIP, Otxarkoaga Ikastetxea, Somorrostro Irakas-gunea, lurreta BHIP...

**Fundazioak eta gizarte erakundeak:** BBK Kuna, Fundación Claret, Fundación EDE, Bagabiltza Fundazioa...

**Ikerketa zentroak:** Bioef (Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioa), Biocruces (Ezkerralde Enkarterri ESko Osasun Ikerketa Institutua) eta Nagusi Intelligence Center.

## Etorkizuneko gizartea prestatzen

2023an irakaskuntzarekin konprometituta jarraitu dugu, **parte hartu dugun unibertsitate-masterren bitartez**. Hala nola:

### Masterra: Zahartze Osasungarria eta Bizi-kalitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioako campusa

### Gerontologiako Unibertsitate Masterra (Ismene)

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

## Biltzarrak eta jardunaldiak

---

- Naiara Fernández gure doktore asistentzialak, **“Pertsonen Arretarako Planak”** izeneko txostenarekin parte hartu du Euskal Herriko Medikuntzaren Errege Akademiak, Espainiako Doktoreen Errege Akademiak, Gizarte Zientzien Nazioarteko Akademiak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako nazioarteko mintegiaren 50. edizioan.
- Naiara Fernández gure doktore asistentzialaren hitzaldia, **“Pronostiko Txarra Iragartzeko Faktoreak Iktusean: Komorbiditatea”**, Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarentzat.
- Naiara Fernández gure doktore asistentzialak prestakuntza eman die Bizkaiko Foru Aldundiko profesionali **“Zainketa Plangintza Aurreratua”**ri buruz.
- Erlazioetan oinarritutako arretari (Gizaria proiektua) eta hura lurraldean ezartzeari buruz **Arabako 6 egoitzatan egindako azterketaren ondorioen aurkezpena**.
- Gure doktore asistentzial Naiara Fernández hitzaldia, Angelini Pharmak antolatutako **“Euskadin antibiotikoak optimizatzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko bidean”** izeneko jardunaldian.
- Gure doktore asistentzial Naiara Fernández hitzaldia, **“Pertsonarengan oinarritutako preskripzioa”**, Arrasateko Adinekoen Kontseiluarentzat.
- Gure doktore asistentzial Naiara Fernández parte hartzea SEFHren 68. Kongresu Nazionalan, **“Osasun Integrala”** hitzaldiarekin.
- Gure doktore asistentzial Naiara Fernández prestatzaile aritu da, **“Zahartzaro Osasungarria eta Zahartze Aktiboa: Zahartzeko Gakoak”** Bizkaiko Abokatu Elkargo Ohoretsuarentzat.
- Espainiako **Geriatría eta Gerontología Elkartearen 63. Biltzarrean** parte hartu dugu, eta honako komunikazio hauek aurkeztu:
  - Etxeko zainketen ekosistemari laguntzeko eredu berria, etxeTIC Etxaniz erreferentziako eguneko zentro batetik koordinatuta.
  - Etxean egoten laguntzeko etxeTIC zerbitzu publikoa ezartzea, laguntza teknologikoak eta harremanetakoak konbinatuz.
  - IMQ Igurcoren soluzio teknologiko berria, IgurTEK, zainketa profesionalak etxera hurbiltzeko.
  - Dignity Therapy: Adineko pertsonen eta haien senideen duintasunaren, itxaropenaren, antsietatearen eta depresioaren aldagaien azterketa.

# 07 KOMUNIKAZIOAREKIN ETA GARDENTASUNAREKIN KONPROMETITUAK

Gure komunikazioak  
**+1.941 hartzailerengana**  
iristen dira

2022	2023
<b>+ 402</b> Langile	<b>+ 449</b> Langile
<b>+ 772</b> Senide	<b>+ 1.086</b> Senide
<b>+ 287</b> Preskriptore	<b>+ 406</b> Preskriptore



2022ko bidalketak guztira: **172**    2023ko bidalketak guztira: **192**

## Egoitza Gardenak APP-a

Familiek **denbora errealean** ezagutu ahal izango dituzte egoiliarren egoerari eta zaintzari buruzko berritasun guztiak.

- Eguneroko jarraipena: jarduerak.
- Arreta eta zainketa plana.
- Tratamendu eguneratua.
- Konstanteak eta neurriak.
- Online hitzorduak.
- Komunikazio korporatiboak.
- Gorabeherak.

### APP-aren erabiltzaileak



**635**  
Senide



**433**  
Egoiliar



# 08 EZAGUTU NAHI ZAITUGU

## Gure zentroak zure zerbitzura daude, baina **zeu zara xedea**

Posta elektronikoz deitu edo idatz diezagukezu, eta gure zerbitzuei buruzko informazioa emango dizugu, eta zure zalantza edo kontsulta guztiei erantzungo diegu. Gure edozein zentrotara ere etor zaitezke, eta pozik emango dizgu arreta.

### IMQ Informazioa eta Harremana

Tel. 94 662 04 00 · [imqayuda@igurco.es](mailto:imqayuda@igurco.es)  
Maximo Aguirre k. 18 bis, 4. solairua  
48011 Bilbo (Bizkaia)

#### IMQ Igurco Egoitzak

##### Bilbozar

Tel. 94 679 27 41  
Vitoria-Gasteiz k. 12  
48003 Bilbo (Bizkaia)

##### Forua

Tel. 94 625 60 73  
Elexalde auzoa, 34  
48393 Forua (Bizkaia)

##### Jose M<sup>a</sup> Azkuna

Tel. 94 630 99 55  
Jose Antonio Aguirre k. zk.g.  
48340 Amorebieta  
(Bizkaia)

##### Orue

Tel. 94 630 05 50  
Dudeako San Migel  
auzoa, zk.g.  
48340 Amorebieta-Etxano  
(Bizkaia)

##### Unbe

Tel. 94 453 70 02  
Gorri bidea, 2  
48950 Erandio (Bizkaia)

##### Zorrozgoiti

Tel. 94 474 25 36  
Zorrozgoiti bidea, 23  
48013 Bilbo (Bizkaia)

##### Araba

Tel. 945 14 21 00  
Salbaterrabide kalea, 9  
01007 Vitoria-Gasteiz  
(Araba)

#### IMQ Igurco Eguneko Zentroak

##### Aiboa Getxo

Tel. 94 465 94 44  
Ormetxe k. 22  
49992 Getxo (Bizkaia)

##### Bilbozar

Tel. 94 679 27 41  
Vitoria-Gasteiz k. 12  
48003 Bilbo (Bizkaia)

##### Estartetxe Leioa

Tel. 94 480 35 68  
Estartetxe k.e 2, 4, 6 Behea  
48940 Leioa (Bizkaia)

##### Etxaniz

Tel. 94 662 05 35  
Marcelino Oreja kalea, 3  
48010 Bilbo (Bizkaia)

##### Ondarroa

Tel. 94 603 60 63  
Iñaki Deuna k. 21 Behea  
48700 Ondarroa (Bizkaia)

##### Otxarkoaga

Tel. 94 459 81 54  
Zizeruene k. 4  
48004 Otxarkoaga (Bizkaia)

##### Plazakoetxe Galdakao

Tel. 94 457 34 91  
Plazakoetxe, 3. txaleta  
48960 Galdakao (Bizkaia)

##### San Adrián

Tel. 94 470 07 06  
San Adrian etorb. 33, 35,  
37 Behea  
48003 Bilbo (Bizkaia)

##### Ugao-Miraballes

Tel. 94 648 29 52  
Udiarraga 79 Behea,  
El Jaro auzoa  
48490 Ugao-Miraballes

##### Zorrozgoiti Zorroza

Tel. 94 425 36 54  
Zorrozgoitibidea k. 23  
48013 Bilbo (Bizkaia)